

ENLIGHT aliantzako unibertsitateekin digitalizazioa eta lankidetzak hobetzeko laguntzen deialdia

Datu nagusiak:

Xedea	ENLIGHT aliantzako gainerako unibertsitateekin lankidetzak arintzeko eta digitalizazioa garatzeko jarduerak finantzatzea.
Gehieneko zenbateko finantzagarria	15.000 euro, BEZa barne.
Eskabideak aurkezteko epea	2026ko irailaren 18ra arte, egun hori barne, erregistro bidez.
Fakturak aurkezteko azken eguna	2026ko azaroaren 30a.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da digitalizazioa garatzera eta [ENLIGHT](#) aliantzako gainerako unibertsitateekiko lankidetzak arintzera bideratutako jarduerak finantzatzea. Hori guztia lan bateratua, komunikazioa, proiektuen kudeaketa, informazio-trukea edo lankidetzak akademikoak, ikertzaileak edo instituzionalak errazten duten tresna, zerbitzu, baliabide edo soluzio digitalen erosketa, kontratazioa edo garapenaren bidez.

ENLIGHT aliantzako unibertsitateak honakoak dira:

[Bernako Unibertsitatea](#)
[Bordeleko Unibertsitatea](#)
[Bratislavako Comenius Unibertsitatea](#)
[Galwayko Unibertsitatea](#)
[Ganteko Unibertsitatea](#)
[Göttingengo Unibertsitatea](#)
[Groningengo Unibertsitatea](#)
[Tartuko Unibertsitatea](#)
[Uppsalako Unibertsitatea](#)

2. Laguntzen helburua

Laguntzak honako helburu hauetakoren bat betetzen duten jardueretara bideratu beharko dira:

- ENLIGHT aliantzako beste unibertsitate batzuekin lankidetzak digitaleko prozesuak hobetzea.

- b) Aliantzako taldeen artean informazioa, materialak, datuak edo baliabideak trukatzea erraztea.
- c) ENLIGHTekin lotutako proiektu, jarduera akademiko, ikerketa-jarduera, kudeaketa-jarduera edo nazioartekotze-jardueretarako laguntza-tresna digitalak garatzea edo ezartzea.
- d) Jarduera bateratuen koordinazioa, komunikazioa eta jarraipena arintzea.
- e) ENLIGHTekin lotutako ekimenen eraldaketa digitala bultzatzea.

3. Laguntzen hartzaileak

ETN edo Incubator Grant proiektuetako kideek, WP desberdinetakoek, bai eta ENLIGHT aliantzako beste unibertsitate batzuekin lankidetzako proiektuak abian jarri edo garatu nahi dituzten talde akademiko eta ikertzaileek ere, programa honen xede diren laguntza ekonomikoak eskatu ahal izango dituzte, betiere proposatutako jarduerak EHUrekin lotuta badaude.

4. Gehieneko zenbateko finantzagarria

Eskabide bakoitzeko gehieneko finantzaketa 15.000 eurokoa izango da, BEZa barne.

Laguntzak proposatutako jardueraren kostua osorik edo partzialki estali ahal izango du, betiere ezarritako gehieneko mugaren barruan eta dagoen aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera.

5. Gastu finantzagarriak

Honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira, besteak beste:

- a) Zerbitzu digitalak edo teknologikoak kontratatzea, Europako subiranotasun teknologikoa sustatzea oinarri dutenak.
- b) Plataformak, aplikazioak edo tresna digitalak garatzea, egokitzea edo ezartzea, ahal den neurrian software libreko eta kode irekiko soluzioak aukeratuz, beti ere, zerbitzuaren eraginkortasuna eta segurtasuna bermatzen badituzte.
- c) Software-lizentziak, ahal den neurrian software librekoak, hodeiko baliabideak edo bertara lotutako zerbitzuak, betiere deialdiaren xedearekin zuzenean lotuta badaude, unibertsitatearen subiranotasun digitala sustatuko duten irtenbideak lehenetsiz eta, ahal den neurrian, hornitzaile teknologikoarekiko mendeotasuna saihestuz.
- d) Digitalizaziorako aholkularitza-, laguntza tekniko- edo euskarri espezializatuko zerbitzuak. Positiboki baloratuko da zerbitzu horiek Euskal Herrikoak izatea edo, halakorik ezean, Espainiakoak edo Europakoak izatea. Enpresaren egoitzaren distantzia erabiliko da alderdi hori baloratzeko.
- e) Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk, behar bezala justifikatuta badaude eta laguntzaren xedearekin lotuta badaude.

Ez dira finantzatuko deialdiaren xedearekin zuzeneko loturarik ez duten edo behar bezala justifikatuta ez dauden gastuak.

6. Eskabideen betekizunak

Pertsona edo unitate eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide formala, erregistro bidez U020000379 - Unibertsitate arteko Lankidetzaren eta ENLIGHTen Zuzendaritzari zuzendua aurkeztua.
- I. eranskina - Interes-adierazpena betetzea; eta bertan; proposatutako jarduera, ENLIGHTekin duen lotura, lortu nahi diren helburuak eta digitalizazioan nahiz aliantzako beste unibertsitate batzuekin lankidetzan espero den eragina deskribatuko dira.
- Gutxienez aurrekontu bat, finantzatu nahi den jarduerari edo zerbitzuari dagokiona, eskatutako zenbatekoa adierazita, BEZa barne.
- Eskabidearen arduradunaren eta inplikaturako unitate, talde edo zerbitzuaren datuak.
- Gaur egun ENLIGHT deialdien barruko laguntzak dituzten proiektuen kasuan, baldintza izango da emandako laguntzan digitalizaziorako laguntzarik ez egotea edo horretarako aurrekontua agortuta egotea.

7. Balorazio-irizpideak

Eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Proposamena deialdiaren xedera egokitzea.
- ENLIGHTekin lotutako prozesu, jarduera edo tresnen digitalizazioari eta datuen tokiko kudeaketa eta gobernantzaren bidez software libreko eta kode irekiko soluzioen bitartez subiranotasun digitala sustatzeari egindako ekarpena.
- ENLIGHT aliantzako beste unibertsitate batzuekin lankidetzan jarduteak eta Europako subiranotasun teknologikoa bermatuko duen ekosistema baten sorrera indartzeak izango duen eragina.
- Jardueraren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.
- Aurkeztutako interes-adierazpenaren argitasuna.
- Jardueraren beharra justifikatzea.
- Proposamenaren kostu-onura erlazioa.
- Proposatutako soluzioa berrerabiltzeko edo mailakatzeko ahalmena, eta subiranotasun digitala sustatzea, datuen tokiko kudeaketa eta gobernantza eta software libreko eta kode irekiko soluzioen bidez.

8. Eskabideak aurkezteko epea eta modua

Eskabideak erregistro bidez aurkeztu beharko dira, U02000379 - Unibertsitate arteko Lankidetzaren eta ENLIGHTen Zuzendaritzari zuzenduta, 2026ko irailaren 18ra arte, egun hori barne.

Dokumentazio osoa ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko da. Hala badagokio, osatu gabeko eskabideak zuzendu egin ahal izango dira, kudeaketa-unitateak ezarritako moduan.

9. Ebazpena

Aurkezteko epea amaitu ondoren, eskabideak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Ebazpenean adieraziko dira, hala badagokio, onartutako eskabideak, esleitutako zenbatekoa eta laguntza gauzatzeko eta justifikatzeko baldintzak.

10. Laguntzaren gauzatzea eta justifikazioa

Finantzatutako jarduerak deialdian ezarritako epearen barruan gauzatu beharko dira, eta, edonola ere, dagozkien fakturak gehienez ere 2026ko azaroaren 30rako aurkeztu beharko dira.

Laguntza justifikatzeko honako hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Jarduera beraren hiru aurrekontu.
- b) Egindako gastua justifikatzen duen faktura edo fakturak.
- c) Gauzatutako jardueraren memoria laburra.
- d) Lortutako emaitzaren ebidentzia, hala badagokio.
- e) Funtsak behar bezala erabili direla egiaztatzeke unitate kudeatzaileak eska dezakeen beste edozein dokumentazio.

11. Pertsona onuradunen betebeharrak

Pertsona edo unitate onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Laguntza eman den xederako soilik erabiltzea.
- b) Jarduera onartutako eskabidean adierazitako baldintzetan gauzatzea.
- c) Justifikazio-dokumentazioa epe barruan aurkeztea.
- d) Finantzatutako jardueraren edozein aldaketa garrantzitsu jakinaraztea.
- e) Hala badagokio, ENLIGHTen esparruan jasotako laguntza aipatzea.

12. Ez-betetzea

Deialdi honetan ezarritako baldintzak ez betetzeak, justifikazio nahikorik ez aurkezteak edo gastu ez-finantzagarriak aurkezteak emandako laguntza osorik edo partzialki galtzea ekar dezake.

13. Datuen babesa

Deialdi honen esparruan emandako datu pertsonalak laguntzak kudeatzeko, ebaluatzeko, ebazteko eta justifikatzeko soilik tratatuko dira, datuen babesari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

14. Indarrean jartzea

Deialdi honek webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

15. Kontaktua

Deialdi honi buruzko edozein kontsulta egiteko, interesdunek honako bide hauek erabil ditzakete:

Telefonia: 943018709

Posta elektronikoa: enlight.admin@ehu.eus

I. eranskina. Interes-adierazpenaren eredua

1. Proposamenaren izenburua

Jardueraren edo proposatutako ekintzaren izena adierazi.

2. Pertsona arduraduna

Izen-abizenak, kargua, unitatea/saila, posta elektronikoa eta telefonoa.

3. Jardueraren deskribapena

Azaldu laburki zer finantzatu nahi den.

4. ENLIGHTeko lotura

Markatu lankidetzak garatuko den ENLIGHT unibertsitate bat edo batzuk:

- ☐ [Bernako Unibertsitatea](#)
- ☐ [Bordeleko Unibertsitatea](#)
- ☐ [Bratislavako Comenius Unibertsitatea](#)
- ☐ [Galwayko Unibertsitatea](#)
- ☐ [Ganteko Unibertsitatea](#)
- ☐ [Göttingengo Unibertsitatea](#)
- ☐ [Groningengo Unibertsitatea](#)
- ☐ [Tartuko Unibertsitatea](#)
- ☐ [Uppsalako Unibertsitatea](#)

Deskribatu jarduerak nola lagunduko duen ENLIGHTeko beste unibertsitate batzuekin lankidetzan jarduten.

5. Helburuak

Proposamenaren helburu nagusiak zerrendatu.

6. Espero den eragina

Adierazi zer hobekuntza espero diren digitalizazioari, koordinazioari, eraginkortasunari edo lankidetzari dagokienez.

7. Aurrekontua

Adierazi kostu osoa, BEZa barne, eta erantsi eskatutako behintzat aurrekontu bat (onartzen bada, ondoren hiru aurrekontu)

8. Gauzatzeko egutegia

Hasiera- eta amaiera-data aurreikusiak adierazi.

9. Espero diren emaitzak

Lortuko diren produktuak, zerbitzuak, tresnak edo hobekuntzak deskribatu.

10. Aplikazioak, plataformak edo web-orriak

Azaldu proposamenaren mantentze teknikoa eta ekonomikoa nola egingo den deialdi honetarako ezarritako iraupenetik harago.

11. Sinadura

Eskabidearen pertsona arduradunaren sinadura.
